

Zumarragako Haur eta Nerabeen Kontseiluaren logoa aukeratzeko lehiaketa

Zumarragako Udaleko Gazteria sailak lehiaketa bat antolatu du **Haurren Hiri Lagunak, Haurren eta Nerabeen partaidetzarako Organoaren (OPIA)** logoa aukeratzeko.

Lehiaketa honetan parte hartzeko hemen daukazu informazio guztia:



Zein dira lehiaketako arauak?

Lehiaketa honetan parte hartzeko arau hauek bete behar dituzu:

- **8 eta 13 urte bitartean izatea.** Hau da, 2011 eta 2016 artean jaiotako adingabea.
- Adingabe bakoitzak **2 logo** aurkeztu ahal izango ditu.

Logoak ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Testu hau idatzita izan: **“Haur eta nerabeen kontseilua”**
- Haur edo nerabe baten **irudia** izan dadila.
- **Arreta piztu** behar du eta **erraz ulertu** behar da transmititu nahi duena.
- Ondo ikusten diren **2 edo 3 kolore deigarri erabili gutxienez.**
- Haurren eta nerabeen **eskubideak** irudikatu edo erakutsi.
- Eskuz egindako **edozein teknika** erabil daiteke: collagea, pintura...
- Orriaren **tamaina A4** (210 x 290 mm) izango da.
- Logoa egingo den orria **kartulina mehe baten gainean itsatsiko** da.
- **Zuk egina** izan behar du.
- **Berria** izan behar du, ez da lehenago argitaratua edo zabaldua izan.



Nola aurkeztu dezaket nire logoa?

Egilea nor den EZ jakiteko moduan aurkeztuko dira logoak, honela:

1. **Logoa edo bi logoak:** logoaren atzean zuk aukeratutako hitz edo testu bat jarri behar duzu, izenburu gisa. Horrek zure logoa identifikatzeko balioko du.
2. **Gutun-azal** bat: aurreko aldean logoari izenburu gisa jarri diozun hitza edo testua idatzi. Eta gutun-azal barruan sartu behar dituzu:
 - zure identitatearen ziurtagiria, hala nola, NANaren fotokopia...
 - paper bat zure datuekin: izen-abizenak, jaiotza-data, zure helbidea, telefonoa...



Noiz eta non aurkeztu behar dut nire logoa?

2024ko urriaren 12a, larunbata, 13:30ak baino lehen.

Hemen: **Zelai Arizti Kultur Etxea. Legazpi kalea, 7 20700 Zumarraga**



Zein sari daude?

Sari bakarra dago. Saria **ikasmateriala** da eta 100 euroko balioa du. Parte hartzen duten guztiek **diploma** bat jasoko dute.



Noiz jakingo da irabazlearen izena?

Epaimahaia izeneko pertsona-talde batek erabakiko du lehiaketa nork irabaziko duen. Irabazten duen pertsonaren izena saria ematen den egunean jakinaraziko da. Saria **azaroaren 20an** emango da, Zumarragako haurren astean. Egun hori baino lehen, epaimahaia irabazleari deituko dio.



Lehiaketako logoen erakusketa

Erakusketa bat egingo da irabazlearen eta lehiaketan parte hartu duten logoekin. Erakusketa **Zelai Arizti Kultur Etxeko sarreran** izango da, **2024ko azaroaren 18tik 26ra**.



Irabazten ez duten logoak jasotzea

Azaroaren 27tik abenduaren 5era bitartean, irabazi EZ duten logoak jaso daitezke. **EZ badira logo horiek jasotzen**, Udalak ez dizkie egileei itzuliko eta erabili ahal izango ditu. Egileek lan horien gaineko eskubideak galduko dituzte eta ezingo dute kalte-ordainik (dirua) eskatu.



Eskubideei eta oinarriei buruz

Saritutako logoa **Udalaren jabetzan geratuko da**. Gainera, Udalak logo irabazlea inprimatu, argitaratu, zabaldu eta halakoak egin ahal izango ditu. Baita beste formatu batera aldatu ere digitalizatzeko.

Lehiaketara aurkezten bazara, Zumarragako Udalaren lehiaketaren **oinarri hauek onartzen dituzula** esan nahi du.



Informazio gehiago

Helbidea: Zelai Arizti Kultur Etxea. Legazpi kalea 7, Zumarraga.

Telefonoa: 943 72 35 10

E-maila: kulturetxea@zumarraga.eus